

## ELGOIBARREN, 2025eko URTARRILAREN 5ean IZANGO DEN

### **LXXXI. NAZIOARTEKO JUAN MUGUERZA KROSAREN ARAUDIA**

1.- Lasterketak Elgoibarko Mintxeta zirkuituan izango dira.

2.- Federatutako lasterketa guztietan legez, **itzulia kendutako edo izateko puntuan dauden, atleta guztiak lasterketatik kanpo** geldituko dira. Hori dela eta, horiei dortsala kenduko zaie eta utzi egin beharko dute zirkuitua.

3.- IZEN EMATEAK:

- Nahitaezkoa izango da izena ematea kategoria GUZTIETAN parte hartu ahal izateko.
- Senior eta beteranoen artean ez da bereiztasunik izango, sailkapen eta sari bakarra izango dira, kategoria absolutua deituko da.
- 2024ko abenduaren 5tik, 2025ko urtarrilaren 1ean bukatuko da 20:00tan
- **Gipuzkoako alebinak (sub-12) eta infantilak (sub-14)** [APP Sistema de Clubes](#) eta [APP Sistema de Centros Escolares](#)
- **Gipuzkoatik kanpoko alebinak eta infantilak**, Kirolprobak bidez [LXXXI CROSS INTERNACIONAL JUAN MUGUERZA ELGOIBAR](#)
- **Federatutako atletak (sub-16, sub-18, sub-20 eta absolutua)**, Kirolprobak bidez izena eman beharko dute [LXXXI CROSS INTERNACIONAL JUAN MUGUERZA ELGOIBAR](#)

4.- Dorsalak urtarrilaren 4an, larunbata, emango dira Elgoibarko Udalaren harreran, eta igandean, urtarrilaren 5ean, zirkuituko sarrera NAGUSIAN.

**Kategoria guztietan korritu beharko da krosaren antolakuntzak ematen duen dortsalarekin. Dorsal horrek txipa izango du atzealdean.**

5.- **Absolutu, junior (sub-20), jubenil (sub-18) eta kadete (sub-16) mailako atleta guztiak, dei kameratik** pasa beharko dute derrigorrez, eta bertan **NANa, lizentzia edo argazkia duen dokumentu ofiziala aurkeztu**. Alebin (sub-12) eta infantilak (sub-14) ere dei kameratik pasa beharko dira, identifikazioa ez da izango beharrezkoa. Txipa irakurriko zaie dei-kameraren sarreran.

6.- Dorsalik, gonbidapenik edo akreditaziorik ez dutenek sarrera ordaindu beharko dute: nagusiek 6€, jubilatuek 4€ eta hurrek 2€.

7.- Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango, proba burutzen den bitartean edo probatik kanpo, ezbeharren bat gertatzen baldin bada.

8.- Proba honetan parte hartzeko, araudi honetan ezarritakoa onartu beharko da.

9.- Araudi honetan jasotzen ez diren gauza guztietarako kontuan izan beharko da World Athletics eta RFEAko araudiak ezarritakoa.